

BELDUR BARIK 2017



PENTSATU, EZTABAIDATU ETA EGIN BELDUR BARIK JARRERAREKIN!

Lagun hori:

Hezkuntza Saila Beldur Barik programa hedatzen laguntzen ari da beste urte batez. Programa hori Euskadiko erakunde guztiek bultzatzen dute, eta, urtez urte finkatzen ari **da indarkeria sexista prebenitzeko urtero gazteen artean egiten den programa integrala modura**. Emakundek eta Eudelek sortu zuten 2009an, berdintasunaren aldeko euskal udalerrien Berdinsarearen barruan. Gaur egun, Emakundek hartu du programaren lidergoa, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien finantzaketa du, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen eta EITBren lankidetzarekin ere bai.

Programak **lan-ildo zuzena ezartzen du gazteekin (12 eta 26 urte artean)**. Haren helburu nagusia da **emakumezkoen kontrako edozer motatako indarkeria prebenitzea**, batik bat emakumezko gazteen kontrakoa. Horretarako, hots, emakumezkoen kontrako edozer motatako indarkeria moduak gainditzeko eta **hartu-eman libreak, errespetuzkoak, berdintasunekoak, anitzak eta ez-sexistak eraikitzeko, gazteen konpromisoa behar da**.

Programak honako hauek ere jasotzen ditu: **zenbait tresna** ikastetxeetan lantzeko; sentsibilizazio-ekintzak, hainbat udalerrikan aurrera eramateko, eta Topaketa Beldur Barik!, hau da, gazteentzako prestakuntza-tailerrak, eztabaidak, eta jolas-jarduerak.

Programako ekintza nagusietako bat **ikus-entzunezkoen Beldur barik lehiaketa** da. 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzentzen zaie, eta ikus-entzunezko adierazpen artistikoak saritzen ditu, neska-mutilek egiten dituztenak erakusteko nola egiten dieten aurre desberdintasunei **Beldur Barik jarrerarekin**. Hau da, jarrera horiek erakusten dute nola egiten dieten aurre neska-mutilek egun gizon eta emakumeen artean dauden desberdintasunei, errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian eta erantzukizunean oinarritutako jarreretan eta indarkeria sexistaren kontrako gutxiespen sendoan oinarrituta. Lanak aurkezteko epea **irailaren 11n ireki da, eta azaroaren 13an itxiko da**. Bi kategoria daude: bata, 12 urtetik eta 17 urtera artekoentzat, eta beste, 18 urtetik eta 26 urtera artekoentzat. Banaka edo taldeka parte hartu daiteke, ikastetxe edo ikasgela modura edo elkarte modura.





























